

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Alkohol tratuan

MOKOFINEN ZORROZKILERO NAGUSIA frantsesa izango da. Besteak beste, jaten eta edari, biak plantatzen ez dira ez kamutsak gure iparraldeko auzoak. Irabazpide emankor bihurtu ere. Eta guk, bestetxeko edo etxekoneko on, ikasi. Irabazpide, negozio, tratu... Izan ere, tratularitarako euskalduna! Jatenari dagokionez, hemengo sukaldariak egundalakoak egin dituztela jakina da. Edari kontutan, ordea, nire ustea zeharo bestelakoa da. Mahats-ardotan frantziar eskola horri etekinen bat kentzen diogu, baina hortik kanpo ezer gutxi. Badugu, bai, non ekin: muztioak, zukuak, sagardoak, udare-ardoak, garagardoak, likoreak, uxualak...

Lehenago aipatzen nuen Citadelle gin frantziarra. Hemeretzi landareren azal, zuku, hazi eta abarrekin egiten dutela diote, eta banan-banan marrazki bidez erakusten dituzte botilan. Hala omen. Hemen nire amen-omena: itxura besterik ez da, eta formula terralpean ezkutatz gina haizatu nahi dute. Marrazkiak halamoduzkoak dira eta landareak ez dira zehatz-mehatz ezagutzeko eran azaltzen. Landareetan argien azpimarratzen dena bere urrutiko jatorria da, exotikotasuna, alegia. Adibidez, laranja azala Mexikotik ekarritakoa dela dio, sinistatzen al duzu? Laranjeta Mediterraneoan edo Asia aldera jo beharrean Mexikora? Mexikon bada Mexikoko laranjondoa izena duen landare bat, *Choisya ternata*. Haren loreak laranjondo aruntarenaren antzekoak dira eta hostoak igurtziz gero usain zitriko nabarmena askatzen du. Gingintzan erabilitako benetako landarea gordean jaso nahi dute eta Mexikoren sona soila erabili? Zer tankera ematen diozu?

Ez nau harritzen. Dunkerquen egiten dute gin hau, eta bere kai aldameneko gotorlekua edo zitadelatik hartua du "Citadelle" izena. Portu estrategikoa izaki, Frantziako handienetakoa da. Espainia, Ingalaterra, Herbehereak, Alemania, Frantzia, denak aritu izan dira hiri hau eta, berarekin, Mantxako kanalaren kontrola bereganatzeko guda ahaleginetan. Dunkerquek ezere



CHTI-GITTE

Goian: "Diabolo flamand" edaten, Dunkerqueko inauterietan. Eskuinean: *Choisya ternata*, Mexikoko laranjondoa.



STAN SHEBS-CC BY SA

sona badu bere korsarioen azioena da. Okerkeria horien bidez, mundu guztitik Europarantz zetozen itsasontziak harrapatu eta harrapakatzen zituzten. Tartean espeziak zekartzatenak. Portuarekin lotzen dute egileek gin horren landare oparotasuna.

Inoiz bertako inauteetara hurbiltzeko aukerarik izanez gero ez alferrik galdu. Soilik egun horietan 1983an asmatutako edari berezia hartzen dute: "Diabolo flamand". Gina, limoi edari zuria eta bioleta ziropa ditu. Zale amorratu taldea ere badu edari honek, LNPFD, Ligue Nationale de Protection du Diabolo Flamand.



CARLOS REGLA



## Sasikoa

Aurten, *Robinia pseudoacacia*, sasiakaziaren urtea izan da. Bere eguneroko hitzen hiztegi bikainean sartzeko adinako kilima eragin dio Anjel Lertxundiri ere. Nahastu zaigu baina maisua, akazia deitu dio, askok bezala. Zaharrek arkazia deitzen diote, baina beste zuhaitz jende bat da akazia, Afrikakoa. Geurea sasikoa da, amerikarra.

Ekaitzak erantzi ditu lore laru usaintsuez eta lur-estali azpiak. Eta gogoan izan: "Sasiakazia lore, antxua urre".